1. Ikasgaia. ZUZENBIDEA. ORDENAMENDU JURIDIKOA ETA ARAU JURIDIKOAK

1.1. Zuzenbidea eta ordenamendu juridikoa.

Pertsonen arteko bizikidetzak ezinbestekoa egiten du Zuzenbidea. Zuzenbidearen oinarrizko helburua da pertsonen bizitza alor desberdinetan arautzea (eremu zibila, merkataritza, lana). Zuzenbidea, gure gizartean elkarbizitza antolatzea eta arautzea eta pertsonen artean sortzen diren gatazkak konpontzea helburutzatduen arauen sistema da.

Arauek hurrengo **ezaugarriak** dituzte:

- **Izaera orokorra**. Araua ez dago pertsona konkretu bati zuzenduta, pertsona multzo bati edo herritar guztiei baizik.
- **Izaera abstraktua**. Arau juridikoek ez dituzte supostu konkretu guztiak erregulatzen. Ezin daiteke bizitzan planteatu daiteken arazo bakoitza konpontzeko arau bat egin. Supostu-tipo orokor eta abstraktu batzuk erregulatzen dituzte eta beren xehetasunekin supostu edo gatazka konkretuetara egokitzea (batzuetan konplikatua izaten dena) posible egiten dute. Zuzenbidean adituak direnei eta epaileei dagokie araua suposamendu eta gatazka konkretuetara egokitzea.
- **Derrigorrezkoak**. Legea bete egin behar da eta ezin da ezjakitea alegatu ez betetzekoarrazoi bezala.
- **Hertsatzaileak** (*coercitivas*) Arau juridikoak ez betetzeak indarrez inposatzea eragin dezake, ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnen arabera. (zigorrak)

Zuzenbidearen **helburuak** dira gizakien arteko bizikidetza antolatzea eta arautzea, justizia eta segurtasuna, besteak beste. Hala ere, zuzenbidea ez da justiziarekin parekatu behar. Herrialde bakoitzak arau jakin batzuk ditu eta arau guztiak ezin dira justiziarekin parekatu (ad. zirkulaziorako arauak). Hala ere, ez dira bidegabeak izan behar. Arauak justiziazkoak diren edo ez, ez da elementu objektibo bat, subjektiboa baizik, pertsona bakoitzaren iritziaren baitan dagoena. Zuzenbideak hiritarren konbibentzia antolatu behar du proportzioa eta berdintasuna errespetatuz.

Zuzenbidearen inguruan honako **sailkapenak** egin ohi dira:

- **Zuzenbide objektiboa**, Estatu bateko ordenamendu juridikoa, hau da, herrialde batean indarrean dauden arau juridikoak. Arau-sistema bat da, gizarte batean gatazkak prebenitzen eta konpontzen dituena.
- **Zuzenbide subjektiboa**, egoera zehatz batetan subjektu bati arauak ematen dizkion eskubide edo ahalmen multzoa (ad. kontsumitzaileen babesa).

Zuzenbide publikoaren eta zuzenbide pribatuaren adarrak:

Zuzenbide publikoa

1) Administrazio Zuzenbidea. Estatuak interes publikoa babesten duten jarduerak burutzen ditu. Jarduera horiek aurrera eramateko sortutako organoei, zentzu zabalean, *administrazioa* deitzen zaie eta jarduera horiek erregulatzen dituzten arau juridikoei Administrazio Zuzenbidea. Zuzenbide honek ahalmen bereziak ematen dizkio administrazioari bere egitekoa burutzeko. Administrazio publikoa, Administrazio publikoen arteko erlazioak eta Administrazio publikoaren eta hiritarren arteko erlazioak erregulatzen dituzten arauek osatzen dute adar hau.

2) Zigor Zuzenbidea. Hiritarren delituak eta dagozkien zigorrak erregulatzen dituzten arau multzoaz osatuta dago. Epaile penala izango da delitu larria, ez hain larria edo arina den erabakiko duena.

3) Finantza eta Zerga Zuzenbidea. Gastu publikoari aurre egiteko hiritarrek egin beharreko ekarpen ekonomikoak (Zergak) erregulatzen dituen arauen sistema da.

4) Zuzenbide Prosezala. Epaileen eta Auzitegien antolakuntza, prozesua eta epaiketak erregulatzen dituzten arauak dira.

5) Nazioarteko Zuzenbide publikoa. Estatuen eta nazioarteko beste subjektu batzuen arteko harremanak arautzen dituen arau-multzoa da, bakea eta nazioarteko lankidetza gauzatzeko.

Zuzenbide pribatua

1) Zuzenbide zibila. Pertsonen arteko erlazioak erregulatzen dituen arau multzoada. Zuzenbide zibila zuzenbide orokorra edo amankomuna da eta zuzenbide pribatuaren barneko beste adarrek arautu ez dutenari, zuzenbide zibilak erregulatutakoa aplikatuko zaio. Pertsonaren aspektu desberdinak erregulatzen ditu, jaiotzen denetik heriotza arte.

2) Merkataritza Zuzenbidea. Zuzenbide berezia da, enpresaria eta honek enpresa baten bidez garatzen duen jarduera erregulatzen ditu.

3) Lan Zuzenbidea. Langileen eta enpresarien arteko erlazioak erregulatzen ditu, bai ikuspuntu indibidualetik (lan-kontratua), bai eta ikuspuntu kolektibotik ere (hitzarmen kolektiboa), langileari lan baldintza minimo batzuk ziurtatzeko asmoz.

1.2. Estatua eta botere-banaketa.

Zuzenbideko Estatu-sozial eta demokratikoa

Espainiar Konstituzioak 1. artikuluan dio Espainia **zuzenbide-estatu sozial eta demokratiko** gisa eratzen dela eta Espainiako estatuaren forma politikoa monarkia parlamentario dela. Forma politikoa hori izanik, aipaturiko hiru botereak bereizten dira.

Estatua *zuzenbidezkoa* da kide guztiak legearen mende daudenean (Estatua legearen mende dago) eta legeak herritarren eskubideak eta askatasunak errespetatu behar dituenean.

Autonomia erkidegoak → Parlamentua (E H → Legebiltzarra)

Autonomia-erkidego bakoitzak autonomia-estatutu bat izango du, eta hori izango da, Espainiako Konstituzioaren ondoren, autonomia-erkidegoaren arau nagusia, bere eskumenak jasotzen dituena. Autonomia estatutu desberdinen edukia ez da berdina eta Estatuak bere ordenamendu juridikoaren barne dagoela onartu du.

Eskumen-banaketari dagokionez, Konstituzioak bi zerrenda jasotzen ditu. Bata, Autonomia Erkidegoek bere gain har ditzaketen eskumenekin eta, bestea, beti Estatuaren eskumenak izango direnekin (KE 148.1 eta 149 art.). Autonomia Estatutuek asumitu ez dituzten eskumenak Estatuarenak izango dira. Estatuko Zuzenbidea Autonomia Erkidegoko Zuzenbidearen ordezkoa izango da. (autonomia erkidegoak jartzen ez dituenak estatuarenak dira)

Autonomia-erkidego bakoitzak bere Gobernua (Botere exekutiboa) eta Parlamentua (Botere Legegilea) ditu, eta horiek beti jardungo dute dagokion Autonomia estatutuan jasotako eskumenen esparruan.

Euskal Autonomia Erkidegoaran egitura

Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan organo autonomikoak (Gasteizen) dauzkagu: Eusko Jaurlaritza (exekutiboa) eta Legebiltzarra (legegilea). Eusko Jaurlaritzak (gobernua) Dekretuak (erregelamenduak) onartzen ditu eta Legebiltzarrak (parlamentua) Legeak.

Lurralde historikoen legegaiak → eskubideak ematekoa

Horien alboan, Lurralde Historiko bakoitzean (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban), organo foralak ditugu: Diputazioak (exekutiboa) eta Batzar Nagusiak (legegilea).

1) Lurralde Historikoetako **Batzar Nagusiak** botere legegilea dira eta foru-arauak onartzeko ahalmena dute. Foru-arauen bitartez, Lurralde Historikoek beren eskumenekoak diren materiak erregulatzen dituzte eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira, indarrean sartzeko, hala nola Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

2) **Diputazioek** (Aldundiek), berriz, Lurralde Historikoen botere exekutiboa edo gobernua osatzen dute. Hauek, foru-dekretuak egiten dituzte.

Kontzertu ekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatu espainiarraren arteko zerga-erlazioa **Kontzertu ekonomikoa** deiturikoaren bitartez erregulatzen da. Honekin zerga-sistema berezi bat eratzen da, estatuko sistema orokorrak onartzen duena, zergei buruzko arau propioekin eta zergak jasotzeko autonomiarekin. Kontzertu Ekonomikoari esker, Euskal Autonomia Erkidegoan hiru Lurralde Historikoetako ogasun publikoen bitartez jasotzen dira zergak.

Zerga bidez bildutakoaren zati bat Euskal Autonomia Erkidegoak administrazio espainiarrari ematen dio Estatuaren eskumenekoak diren zama orokorrei aurre egiteko (ad. nazioarteko harremanak, defentsa eta indar Armatuak, interes orokorreko garraioa, e.a.). Estatuari ordaintzen zaion zergen zati horri **kupoa** deitzen zaio.

1.4. Arau juridikoak eta Zuzenbidearen iturriak.

Espainiar ordenamendu juridikoaren iturri formalak eta beren jerarkia Kode Zibilaren 1. artikuluan zehazten dira. Hauek dira: legea, ohituraeta zuzenbidearen printzipio orokorrak.

Legea edo arau idatziak

'Legea' hitza zentzu zabalean edo zentzu hertsian erabili daiteke. Zentzu zabalean erabilita botere legegileak nahiz botere exekutiboak egindako arau juridikoak adierazten ditu. Zentzu hertsian, aldiz, legeak dira botere legegileak sortutako arauak.

Gorte Nagusiak eta Autonomia Erkidegoetako Parlamentuak dira botere legegileak edo legeak onartzeko ahalmena dute. Azken hauek, beren eskumenekoak diren gaietan bakarrik izango dute ahalmen hori.

Erregelamenduak egiteko ahalmena Estatuko gobernuari (Botere exekutiboa) eta autonomia-erkidegoetako gobernuari ematen zaie.

1) - **1978.ko Espainiar Konstituzioa** Estatuko lege gorena da eta gainontzeko arauek berak jasotzen dituen printzipioak errespetatu behar dituzte. Bertan, pertsonen funtsezko eskubideak definitu eta antolaketa politikoaren lerro nagusiak finkatzen dira. Legeek ezin dute Konstituzioa kontraesan, bestela deusezak izango bait dira. Legeak konstituzionalak diren, hau da, Konstituzioa betetzen duten ala ez, Auzitegi Konstituzionalak zaintzen du.

2) - **Nazioarteko Hitzarmena.** Zenbait Estaturen arteko paktu edo hitzarmenak dira, Estatuek nazioarte mailan hartzen dituzten konpromezuak. Nazioarteko Hitzarmenak, Estatuan berretsi eta Estatuaren Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu ondoren, estatuko ordenamendu juridikoaren barne sartzen dira eta justizia auzitegiek aplikatu egin beharko dituzte. Hitzarmen hauek egiteko eskumena Estatuko organo zentralei dagokie eta ez Autonomia Erkidegoko organoei.

3) Estatuan, lege indarreko lau arau-mota ditugu: Lege organikoak, Lege arruntak, Errege Lege-Dekretuak eta Legegintzako Errege-Dekretuak. Guztiak, Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) argitaratu behar dira indarrean sartzeko.

- **Lege Organikoa** Kongresuaren gehiengo absolutuaren bidez onartzen den legea da eta bera aldatzeko edo indargabetzeko ere gehiengo absolutua behar da. Jerarkiari dagokionez, Konstituzioaren azpitik daude eta, azken honek dionez, gai batzuk Lege Organiko bidez erregulatu behar dira, hain zuzen: funtsezko eskubide eta askatasun publikoen garapena, Autonomia Estatutuak, hauteskundeak erregulatzen dituzten arauak eta Konstituzioak aurreikusitako beste batzuk. Gai hauek lege organiko bidez arautu behar dira. Ezin da beren arauketa egin edo aldatu

kontseiluak *Errege dekretuak* egiten ditu, eta ministroek *Agindu ministerialak*. Autonomia Erkidegoan eskema berdina errepikatzen da, gobernuaren *dekretuak* eta sailburuen *aginduak* egiten dira.

Azalpena: Dekretu, Lege Dekretu edo Legegintzako Dekretu hitzarekin batera "Errege" hitza erabiltzen bada (Errege Dekretua, Errege Lege-Dekretua edo Legegintzako Errege-Dekretua) Estatuak onartu duela esan nahi du. Hitz horiekin batera "Errege" hitza erabiltzen ez bada, Autonomia-erkidego batek onartu duela esan nahi du.

Zuzenbidearen beste iturri batzuk: ohitura eta zuzenbidearen printzipio orokorrak

Ohitura eskualde edo leku batean denbora luzez, behin eta berriz errepikatzen den portaera bat da, inguruko pertsonek betebeharreko arautzat hartzen dutena. Ohitura, arazoa konponduko duen legerik ezean izango da aplikagarria. Beraz, egoera juridiko bati dagokion arau idatzirik ez badago, ohitura izango da aplikagarri.

***Zuzenbidearen Printzipio* orokorrak** zer diren esatea ez da erraza. Urteetan zehar gizartean ongi ikusiak izan diren portaeratan inspiratutako printzipioak dira: berdintasuna, justizia, ekitatea, zuzentasuna, fede ona, etab. Zuzenbidearen printzipio orokorrak lege edo ohitura faltan aplikatuko dira. Epaileak planteatzen zaizkien arazo guztiak konpondu beharrean daude.

Hori dela eta, legeek edota ohiturek arazoren bat konpontzeko modurik ez badute, epaileak arazoari erantzuna aurkitu beharko dio zuzenbidearen printzipio orokorrak aplikatuz. Printzipio asko, gaur egun, arau idatzietanjasotan daude, eta ordenamendu juridikotik atera daitezke.

Jurisprudentzia ez da Zuzenbidearen iturri. Kode Zibileko 1.6 artikuluak jurisprudentziaz zera dio: "Jurisprudentziak ordenamendu juridikoa osatuko du, Auzitegi Gorenak arauak behin eta berriz interpretatu eta aplikatzerakoan izan duen irizpidearekin". Beraz, jurisprudentzia Auzitegi Gorenaren epai errepikatuek osatuko dute. Epai edo sententzia bakar batek ez du jurisprudentziarik egiten.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak ez ditu beheragoko Auzitegiak obligatzen, ezta Auzitegi gorena bera ere, honek bere doktrina (irizpidea) aldatu egin bait dezake. Baina beheragoko Auzitegiengan eragin handia du, hauek emandako epaiak Auzitegi Gorenak deuseztatu egin ditzakelako. Hori dela eta, Auzitegi Gorenaren erabakienantzeko kasuak dituztenean kontuan hartzen dituzte. Baina sententzia horiek ez dute Zuzenbiderik sortzen, beraz ez dira Zuzenbidearen iturri, epaiek erabakitzen dutenkasutik kanpo ez bait dute obligaziorik sortzen. Jurisprudentzia ez da zuzenbidearen iturri baina arauak interpretatzen eta aplikatzen dituenean nolabait edukia jartzen die eta, zeharka bada ere, zuzenbidea osatzen du.

1.5. Europar Batasuneko Zuzenbidea

1986.an Espainia Europar Erkidegoko kide bihurtu zen eta, harrezkero, haren arauetara lotuta gelditu zen. Momentu horretan, Europar Erkidegoko Zuzenbidea, gaur egun Europar Batasunekoa dena, espainiar ordenamendu juridikoaren iturri bihurtu zen. Europar Batasuneko arauak Europar

2. ikasgaia.- Merkataritza enpresa antolatzeko moduak.

2.1. Merkataritza enpresa antolatzeko modu desberdinak.

Enpresa, kapital- eta lan-antolaketa bat da, merkaturako ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko edo bitartekotza egiteko.
Enpresaria, enpresaren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa da. Norberaren izenean, pertsonalki edo ordezkari baten bitartez, merkaturako merkataritza, industria edo zerbitzu jarduera egiten duen pertsona fisikoa edo juridikoa da.

Bere egitura kontuan izanda, bi enpresari mota daude: banakako enpresaria eta enpresari soziala.

- Banakako enpresaria: enpresaren titularra pertsona fisiko bat da. Gizarte Segurantzaren "autonomo"-en erregimenean alta hartzen du.

- Enpresari soziala: enpresaren titularra pertsona juridiko bat da (ad. S.A., E.M.S., Sozietate Kolektiboa, Sozietate Komanditarioa, Sozietate Kooperatiboa, Lan sozietatea).

Kasu batean, nahiz bestean, enpresari izateko eta merkatuan jarduteko zenbait baldintza bete behar dira: gaitasunari buruzkoak, sozietatea eratzeko formaltasunak, baimen administratiboak, zergak, legezko zenbait debeku kontuan izan, etab.

Denborarekin, enpresari sozialak garrantzi handia hartu du merkatuan. Arrazoi batzuk hurrengoak izan daitezke: 1) Arrazoi nagusia, egindako zorrengatik erantzukizun mugatua izateko nahia da. Sozietate mota batzuetan (S.A. eta E.M.S.), bazkideek ez dute sozietatearen zorrengatik (jarduera enpresarialaren ondorioz egindako zorrengatik) pertsonalki erantzuten. Banakako enpresariak, ordea, jarduera enpresarialaren ondorioz egindako zorrengatik beti erantzuten du bere ondare guztiarekin (salbuespena: erantzukizun mugatuko ekintzailea). 2) Jarduera enpresarial batzuen tamaina handiagatik, zaila da banakako enpresariak, berak bakarrik, jarduera horiek aurrera ateratzea. Banakako enpresariarentzat zaila izan daiteke enpresa handien antolakuntzaz bera bakarrik arduratzea eta jardueraren arriskuei berak bakarrik aurre egitea. Gainera, enpresa bat handia denean beharrezkoa da zenbait pertsona elkartzea, kapital gehiago biltzeko ekarpen gehiago eginaz, banakako pertsona batek kopuru horiek berak bakarrik lortzea oso zaila izanik. 3) Interes fiskalak ere egon daitezke sozietate bat eratzeko orduan. Enpresariaren negozioak mozkin asko ematen baditu, Sozietate bat eratzeko joera egongo da. Oro har, sozietateek beren irabazien ehuneko portzentaje bat ordaindu behar diote Estatuari, sozietateen gaineko zerga gisa; banakako enpresariek, ordea, irabaziak, jasotako errentaren arabera ordaintzen dituzte, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

eskritura publikoan ematen dena, eta eskritura hori Merkataritzako Erregistroan inskribatu behar da.

Sozietatearen kontzeptua: Sozietatea, bi pertsonak edo gehiagok (bazkide fundatzaileek) egindako kontratu bat da (sozietate-kontratua), sozietate baten ondarea osatuko duen fondo komun bati ekarpenak egitea adosten dutelarik. Jarduera ekonomikoa egitea da sozietatearen helburua, bazkideen artean bana daitekeen irabazia lortzeko. Egindako ekarpenen truke, bazkide fundatzaileek, sozietatearen kapitaleko partaidetzak (partizipazioak edo akzioak) jasotzen dituzte.

Kontratua amaitu ondoren, nortasun juridiko propioa duen pertsona juridikoa edo erakundea eratzen da. Sozietate-kontratua kontratu berezia da, pertsona juridiko berri bati bizia ematen diona. Pertsona juridiko horrek hartzen du enpresari izaera, eta ez bere bazkideek. Bazkideen azken helburua irabaziak lortzea da. Kontratu honek, bazkide fundatzaileak eta ondoren bazkide bihurtuko direnak elkartu eta behartzen ditu.

Kasu batzuetan, sozietatearen jatorria, kontratu batean izan beharrean, pertsona bakar batek egindako negozio batean dago, eta, horrela, bazkide bakarreko sozietate bat eratzen da (Pertsona bakarreko Sozietatea) (aukera hori Sozietate Anonimoan zein Erantzukizun Mugatuko Sozietatean dago, baina ez sozietate pertsonalistetan).

Sozietate bat modu erregularrean eratzeko, sozietate-kontratua notarioaren aurrean eskritura publikoan ematen da, eta eskritura publiko hori Merkataritzako Erregistroan inskribatu behar da. Formalitate horiek bete ondoren, sozietateak nortasun juridikoa izango du eta enpresari izango da.

Sozietatearen nortasun juridiko honek ondorio batzuk ditu:

a) Sozietatea sujetu edo pertsona bat da, bere eskubide eta obligazioekin. Bere deitura du, bere egoitza, etab. Bere nortasun propioa dauka, bazkideen nortasunetik desberdina.

b) Sozietateak enpresari izaera du baina pertsona juridiko bat denez, bere izenean kontratuak, negozioak eta eragiketak egingo dituzten ordezkari batzuk izendatuko ditu. Ordezkari hauek egindako egintzak sozietateak bereak egingo ditu (sozietateak egin izan balitu bezala). Bazkideak ez dira enpresariak eta sozietatea kudeatu eta ordezkatzen duten administratzaileak ere ez dira enpresariak. Enpresaria, jarduera enpresariala egiteko eratu den pertsona juridikoa da.

c) Sozietateak bere ondare propioa du, bere bazkideen ondaretik autonomoa (desberdina). Hasera batean, bazkideek egindako ekarpenek osatzen dute sozietatearen ondarea eta, behin ekarpena

den sozietate baten kapital-zifra, sozietateen ordezkarien identitatea, urteko kontuak, etab. Horrela, merkatuaren gardentasuna bermatzen da eta enpresaren finantza-egoera eta jardueraren ezaugarriak ezagutarazten dira.

Merkataritzako Erregistroaren antolakuntza. Merkataritza Erregistroa, **Merkataritza Erregistro Lurraldetarrek** eta **Merkataritza Erregistro Zentralak** osatzen dute.

Merkataritzako Erregistro Lurraldetarrak, Probintzia bakoitzeko hiriburuetan, Zeutan eta Melillan, Santiago de Compostelan eta zenbait uhartetan (Balearetan eta Kanarietan) daude kokatuta. Merkataritza Erregistro Lurraldetarren funtzioak hurrengoak dira:

1.- Oinarrizko funtzio bezala, *inskribagarriak diren pertsonen eta beren egintzen eta gorabeheren inskripzioak* egitea da. Honetarako, inskripzioetarako liburu bat dago eta inskribatutako pertsona bakoitzak orri pertsonal bat dauka, bertan, pertsona horren egintza eta gorabeherak jasotzen direlarik.

2.- *Enpresarien liburuak legeztatuko* dituzte. Enpresarien liburuen egiazkotasun maila handiagoa lortzea da legeztatzearen helburua, ekitaldia itxi ondoren, enpresariak liburu horiek (liburu kontableak eta akta liburuak) bere komenentziara aldatu ez ditzan. Zertan datza legeztatzeak? Erregistroak, enpresariaren liburuari kode alfanumeriko bat ematen dio, liburu hori itxita eta zigilatuta, aldaezinik gelditzen delarik. Liburuak telematikoki legeztatuko dira, euskarri informatikoan bete ondoren eta ekitaldia itxi eta lau hilabete igaro baino lehen. Legeztatutako liburu horien edukia ez da merkataritzako erregistroan gordetzen.

3.- *Sozietateen urteko kontuen gordailua (depositoa).*

Sozietatearen ekitaldia itxi eta, gehienez, hiru hilabeteko epean, sozietatearen administratzaileek urteko kontuak formulatu behar dituzte. Urteko kontu horiek, bazkideen Batzar nagusiak onartu beharko ditu eta, horretarako, administratzaileek ohiko batzar nagusiaren deialdia egingo dute. Urteko kontu horiek Batzarrak onartu ondoren, hilabeteko epean, Merkataritzako Erregistroan gordailuan utzi beharko dira. Urteko kontuak auditore batek ikuskatu dituenean, urteko kontu horiek auditoreak egindako auditoria txostenarekin depositatu beharko dira.

Zer gertatuko litzateke sozietate batek urteko kontuak Merkataritzako Erregistroan depositatuko ez balitu? Alde batetik, ICAC-ek isun bat jarriko dio sozietateari eta, bestetik, Sozietate horrek ezingo ditu Merkataritza Erregistroan berari buruzko dokumentuak inskribatu (salbuespena: dokumentu gutxi batzuk bakarrik inskribatu daitezke, ad. administratzaileak edo gerenteak kargutik kentzea edo beraien dimisioa, sozietatearen desegitea, etab). Gainera, sozietatearen administratzaileek beren obligazioak ez betetzeagatik erantzukizunak izan ditzakete.

2.- *Legezkotasun printzipioa.* Inskribatutakoa legalki baliozkoa dela uste da. Erregistratzaileak inskripziorako aurkeztu zaion dokumentua kalifikatzen du, hau da, dokumentu horrek legezko baldintzak betetzen dituen ala ez aztertzen du eta, betetzen baditu, inskribatu egingo du.

3.- *Legitimazio printzipioa.* Kalifikatua izan ondoren, egintza bat Erregistroan inskribatzen bada, inskribatutakoa baliozkoa eta zehatza dela uste da epaile batek kontrakoa deklaratzen ez duen bitartean.

4.- *Aurkajargarritasun (oposagarritasun) printzipioa.* Inskribatutakoa Merkataritzako Erregistroaren Aldizkarian argitaratutakoan fede oneko hirugarrenei oposagarria da, hau da, guztiek ezagutzen dutela uste da eta hirugarrenek ezingo dute ez zutela ezagutzen esan edo alegatu nahiz eta horrela izan. Aldi berean, zerbait ez badugu inskribatzen ezin diegu fede oneko hirugarrenei oposatu.

5.- *Traktu jarraituaren printzipioa.*

- Enpresari baten egintzak eta gorabeherak inskribatzeko, aurretik enpresaria egon beharko da inskribatuta.

- Aurretik egindako egintzak aldatzen dituzten egintzak inskribatzeko beharrezkoa da lehenengoak inskribatuta egotea.

6.- *Publizitate formalaren printzipioa.* Erregistroa publikoa da. Beraz, edozein pertsonak Erregistroan sarrera du interesatzen zaizkion Erregistroko datuak ezagutzeko. Publizitatea paperaren bidez edo telematikoki eman daiteke. Zein dokumenturen bidez jaso daiteke informazioa?

- Erregistratzailearen zertifikazio edo ziurtagiri baten bidez. Ziurtagiria da erregistroko idazpenen edukia frogatzeko bidea.

- Ohar soil informatzaile baten bidez (nota simple informativa).

8.- *Fede publiko erregistralaren printzipioa.* Inskripzio bat baliozkoa ez dela deklaratzen bada, honek, ez ditu fede oneko hirugarrenek lortutako eskubideak kaltetuko.

Merkataritzako Erregistroan inskribatzearen efektuak.

1.- *Efektu deklaratzailea.* Inskripzioak, egintza bat publiko egiteko balio du, hau da, hirugarrenei informazioa emateko. Baina egintza horrek balioa du nahiz eta inskribatuta ez egon.

Banakako enpresaria Merkataritza Erregistroan inskribatuta badago edo inskribatutako sozietate bat bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatu behar da. Beraz, bereizi egin behar dira inskribatutako botereak dituzten faktoreak eta inskribatutako botererik gabeko faktoreak. Ahalordea inskribatuta badago, faktorearen jarduerak enpresaria behartzen du ahalordearen terminoetan. Arrazoia da ahalordea Erregistroan inskribatuta badago, hirugarrenek ahalordearen mugak ezagutu ditzaketela.

Faktore nabarmena: Merkataritza Erregistroan inskribatutako ahalorderik ez duen pertsona da, baina hirugarrenek uste dute enpresariak establezimendu baten buru jarri duela eta enpresariaren izenean kontratatu dezakeela, eta establezimenduaren trafikoa garatzeko ahalmen nahikoa duela, faktore gisa jokatzen ikusten dutelako. Hala ere, inskribatutako ahalorderik ez duenez, faktorearen jarduerak enpresaria behartzen du establezimenduaren trafikoari dagozkion gai guztietan, hirugarrenek ezin dutelako jakin botere orokorrari mugarik jarri zaion ala ez. Are gehiago, faktore nabarmenak egindakoa, nahiz eta bere izenean egin (ez duelako adierazi enpresari nagusiaren izenean ari zela), eta ez enpresariaren izenean, betiere egindako kontratua zerbitzatzen duen enpresaren trafikoaren barruan egiten bada, enpresari nagusiaren kontura egin dela uste da, eta hirugarrena enpresariarengana zuzendu daiteke kontratua betetzea eskatzeko.

2.5. Enpresa arriskua eta enpresariaren zorrengatiko erantzukizuna.

<u>Banakako enpresariaren zorrengatiko erantzukizuna</u>

Merkataritzako banakako enpresariak, edozein pertsonak bezala, egungo eta etorkizuneko ondasun guztiekin erantzungo du egindako zorrengatik. Gainera, bere jarduera enpresarialari lotuta dauden ondasunekin eta bere ondasun pertsonalekin erantzungo du. Hala ere, badago salbuespen bat. Banakako enpresari (pertsona fisikoa) izanda, "erantzukizun mugatuko ekintzaile" (emprendedor de responsabilidad limitada) izaera hartzen badu, bere erantzukizuna mugatzea lor dezake. Horretarako, Merkataritzako Erregistroan inskribatu behar da (inskripzio hori telematikoki egin dezake) eta urteko kontuak Merkataritza Erregistroan depositatu beharko ditu. Erantzukizunaren muga zordunaren ohiko etxebizitzari bakarrik dagokio eta, gainera, bere balioak, 300.000 euro gainditzen ez baditu (300.000x1,5, izango da, milioi bat biztanle baino gehiagoko hirietan). Enpresari ekintzaile honek bere dokumentazio guztian "erantzukizun mugatuko ekintzailea dela" azaldu beharko du. Jabego Erregistroan inskribatuta dagoen etxebizitza horren inskripzioan, enpresariaren zorrengatik etxebizitza horrekin ez dela erantzungo adieraziko da. Hala ere, beste ondasun guztiekin bai erantzungo du sortzen dituen zorrengatik. Etxebizitza hori ez da babestuta egongo Ogasuna eta Gizarte Segurantzaren aurrean.

<u>Enpresari sozialaren zorrengatiko erantzukizuna</u>

- Ezkontza ondoren dohainik jasotakoak (herentzia bidez edo donazioz).
- Ondasun pribatiboekin erositakoak.
- Etab.

b) Irabazpidezko ondasunak, hau da, amankomunak edo bi ezkontideenak direnak:

- Ezkontide batek edo besteak ezkondu ondoren bere lanetik lortutako ondasunak.
- Irabazpidezko ondasunek edo ondasun pribatiboek sortutako fruitu, errendimendu edo interesak (ad. apartamentu baten errenta).
- Irabazpidezko diruarekin erositakoak.
- Etab.

Ikusi dugu banakako enpresariak bere zorrengatik bere ondasun guztiekin erantzuten duela. Enpresari ezkonduaren kasuan ordea, beste arazo bat daukagu: ea enpresariaren erantzukizun hori irabazpidezko ondasunetara eta beste ezkontidearen (enpresaria ez dena) ondasun pribatiboetara hedatu daitekeen.

Gai honi buruz Kode Zibilak dioena aplikatzen da gaur egun. Kode honek dioena kontuan izanda:

Enpresariak bere ondasun pribatiboekin eta irabazpidezko ondasunekin erantzungo du bere jarduera enpresarialaren ondorioz egindako zorrengatik. Ez du erantzungo bere ezkontidearen (enpresaria ez dena) ondasun pribatiboekin, azken honen adostasun espresua duenean ezik.

Arau hau irabazpidezko erregimena dagoenean bakarrik aplikatuko da. Orain arte esandakoa ezkontzako kapitulazioetan aldatua izan daiteke.

2.7. Enpresariaren kontabilitatea eramateko obligazioa.

Enpresari guztiek kontabilitate ordenatua eta enpresaren jarduerara egokitua eraman behar dute, merkataritzako edo industriako eragiketen jarraipen kronologikoa egin ahal izateko.

Enpresariek, kontabilitatea liburu-multzo baten bidez eramango dute. Liburuak hurrengoak dira:

1) Egunkari Liburua eta 2) Inbentarioen eta urteko kontuen Liburua. Sozietateek, gainera, akta-liburua eramango dute.

Baldintza pertsonalak. Kontabilitatea zuzenean enpresariek edo behar bezala baimendutako beste pertsona batzuek eramango dute, enpresariaren erantzukizun pean. Enpresariaren kontabilitatea eramateko beste pertsona batzuei baimena emandakotzat joko da, kontrako frogarik ezean.

Liburuak gordetzeko obligazioa eta sekretu obligazioa. Enpresariak sei urteko epean gorde beharko ditu negozioari buruzko liburuak eta dokumentazio guztia, liburuetan egindako azken idazpenetik kontatzen hasita, nahiz eta enpresari izateari utzi. Betebeharra enpresariaren

ekitaldiko batez besteko langile-kopurua 50etik gorakoa ez izatea. Gainera, balantze laburtua aurkeztu dezaketen sozietateek ez dute egiten duten sozietateek ez dute ondare garbiaren aldaketen egoera orria diru-fluxuen egoera orria aurkezteko obligaziorik.

Urteko kontuen gaineko erantzukizuna. Urteko kontuak sinatu eta beraien erantzule izango dira:

- Enpresari bera, pertsona fisikoa bada.
- Sozietatearen zorrengatik erantzukizun mugagabea duten bazkideak.
- Sozietate anonimoetako eta erantzukizun mugatuko sozietateetako administratzaile guztiak.

Sinadura oso garrantzitsua da, sinadurarekin urteko kontuen edukia bere gain hartzen dutelako eta, kontu horiek beraiek idatzi edo ez, kontuetan egon daitezkeen akatsen erantzule egiten dira, kontu horiek beraiek idatzi edo ez.

Uxue Urteaga Agote

1. PRAKTIKA:
Atalak: 1.1, 1.2
Data: 2024ko irailak 18

Ekonomia Linealetik Ekonomia Zirkularrera

Mondragon Unibertsitateko Idoia Urain ikertzailearen elkarrizketaren bideoa ikusi ondoren: 10 URRATS IDENTIFIKATU EKONOMIA LINEALETIK EKONOMIA ZIRKULARRERA BIDEA EGITEKO.

1.- Material fosila erabili ordez material berriztagarriak erabiltzea

2.- Hondakinak murrizteko haiei erabilera berri bat ematea

3.- Kontzientziazio lanak egitea

4.- Inpresio industrialaren e legea aldatzea

5.- Kontsumitutakoa berrerabili

6.-

7.-

8.-

9.-

10.-

oinordekoei (pertsona fisikoa den enpresariaren kasuan) edo likidatzaileei (desegindako sozietatearen kasuan) ere dagokie.

Enpresariaren kontabilitatea sekretua da. Hala ere, ez da erabateko sekretua, salbuespenak egonik. Merkataritza Kodeak aukera ematen du, kasu batzuetan, enpresariaren kontabilitatea ikusteko judizialki eskatu ahal izatea. Lehenik eta behin, posible da epaileari (edo epaileak ofizioz erabakitzea) kontabilitatearen ***Komunikazioa edo ezagutze orokorra*** eskatzea ondorengotza unibertsalaren, konkurtsoan, sozietateen likidazioan, enplegua erregulatzeko espedienteen kasuan edo bazkideek edo langileen ordezkariek zuzeneko azterketa egiteko eskubidea duten kasuetan. Bigarrenik, epaileak, ofizioz edo norbaitek eskatuta, kontabilitate liburuen zati baten ***Erakusketa partziala*** agindu dezake, hau da, auziarekin zerikusia izan beharko duen aspektuetara mugatuta. Bai komunikazioa bai erakusketa merkataritza establezimenduan eginen dira, kontabilitate liburuak handik atera ez daitezen.

Urteko kontuak. Urteko kontuen aurkezpena, onarpena eta Merkataritza Erregistroan gordailuan uztea

Urteko kontuen **prozedurak** fase hauek ditu:

1) Administratzaileak behartuta daude urteko kontuak formulatzera eta emaitza aplikatzeko proposamena egitera, gehienez, sozietatearen ekitaldia itxi eta hiru hilabeteko epean.

2) Urteko kontuak egin ondoren, kasu batzuetan, auditore batek ikuskatu behar ditu, auditoria txosten bat egingo duelarik.

3) Administratzaileek urteko kontuak onartzeko ohiko batzar orokorraren deialdia egingo dute, eta urteko kontuak eta, hala badagokio, auditoria-txostena bazkideen eskura jartzen dira.

4) Bazkideen Batzar nagusiak urteko kontuak onartu behar ditu.

5) Administratzaileek, urteko kontuak onartu zirenetik hilabeteko epean, Merkataritza Erregistroan gordailatuko dira.

Urteko kontuak osatzen dituzten dokumentuak. Urteko kontuak honela osatzen dira: balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera orria, diru-fluxuen egoera orria eta memoria.

Balantze laburtua. Segidako bi ekitalditan Kapitaleko Sozietateei buruzko Legearen 257. artikuluan ezarritako irizpideen azpitik dauden sozietateei ***balantze laburtua*** egiteko ahalmena ematen zaie, balantze sinpleagoa edo errazagoa. Sozietateek balantze laburtua eta Ondare Garbiaren egoera orria laburtua egin ahal izango dute, baldin eta, bi ekitaldi jarraituetan, gutxienez, hiru egoera hauetako bi gertatzen badira: a) aktiboko partidek 4.000.000 euro ez gainditzea; b) urteko negozio-zifraren zenbateko garbiak 8.000.000 euro ez gainditzea; c)

Enpresari sozialak (sozietateak), bere ondasun guztiekin erantzungo du egindako zorrengatik. Gainera, kasu batzuetan, sozietatearen zorrengatik erantzuteko sozietatearen ondarea nahikoa ez denean, bazkideek ere erantzungo dute beren ondasun pertsonalekin (sozietate pertsonalistetan: Sozietate Kolektiboa eta Sozietate Komanditarioa, azken honetan, bazkide komanditarioen ondasunak salbu gelditzen dira). Beste kasu batzuetan, bazkideek ez dute sozietatearen zorrengatik erantzungo (sozietate kapitalistetan: Sozietate Anonimoa eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatea).

2.6.- Pertsona ezkondua merkataritza jardueran.

Ezkontza kontratu bat da eta ondorio juridiko eta ekonomiko garrantzitsuak ditu pertsona guztientzako eta enpresariarentzako ere. Ezkontzean, ezinbestekoa da ezkontideen arteko erregimen ekonomikoa erregulatzea. Kode Zibilak dionez, ezkontideek askatasun osoa dute ezkontzaren erregimen ekonomikoa zein izango den erabakitzeko eta ezkontideek edozein momentutan alda dezakete hasieran erabakitakoa. Ezkontzaren erregimen ekonomikoa zein izango den ezkontideek ezkontza-kapitulazioen bidez erabaki dezakete. Kapitulazio horiek, hirugarrenei oposagarriak izan daitezen, Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko dira. Ezkontza-kapitulazioak ezkontideen arteko akordio edo kontratu bat dira eta bertan beren ezkontzaren erregimen ekonomikoa erregulatzen dute. Kapitulazioak eskritura publikoan egingo dira eta, gainera, hirugarrenen aurrean efektua (oposagagarriak) izan dezaten Erregistro publikoetan inskribatu beharko da.

Hala ere, oso normala da ezkontideek kapitulaziorik ez egitea. Espainian, kapitulazioak egiten ez diren kasuetan, **irabazpidezko ondasunen sozietatearen erregimena** aplikatuko da (salbuespen batzuekin). Ezkontza kapitulazioak egingo balira, baina Merkataritza Erregistroan inskribatuko ez balira, hirugarrenen aurrean irabazpidezko ondasunen sozietatearen erregimena aplikatuko da ere.

Kapitulazioetan *ondasunen banantze-erregimena* erabaki dezakete ezkontideek eta kapitulazio horiek Merkataritza Erregistroan inskribatzen badituzte erregimen hori hirugarrenei oposatuko zaie. Erregimen honetan, ezkontide bakoitzak ezkondu aurretik zituen ondasunak bakoitzaren ondasun pribatiboak izango dira eta ezkondu ondoren lortutakoak baita ere. Ezkontide bakoitzak egindako zorrengatik bakoitzak erantzungo du bere ondasun propioekin.

Hirugarren aukera bat ere badago: partaidetzako ezkontza-erregimen ekonomikoa.

Irabazpidezko ondasunen sozietatearen erregimenean bi motako ondasunak egon daitezke:

a) Ondasun pribatiboak, hau da, ezkontide bakar batenak direnak:

- Ezkondu aurretik ezkontide bakoitzak zituen ondasunak.

2.- *Efektu eratzailea.* Beste kasu batzuetan, inskripzioa behar beharrezkoa da egintza baliozkoa izateko. Adibidez, Sozietate Anonimo bat inskribatzen ez den bitartean ez da Sozietate anonimo hori eratuko. Inskripzioa beharrezkoa da Sozietate Anonimoa eratzeko.

2.4. Enpresaren zuzendaritza.

Enpresaren zuzendaritza-ahalmena

Enpresaren zuzendaritza-ahalmena enpresariari berari dagokio. *Banakako enpresaria* bada, berari dagokio zuzendaritza-ahalmena eta enpresaria adingabea bada haren legezko ordezkarien bidez zuzenduko da enpresa.

Enpresari soziala bada, bi gobernu-organo izango ditu (Batzar Orokorra, administratzaileak), eta horiek izango dira, printzipioz eta bere eginkizunen barruan, zuzendaritza-ahalmen hori beteko dutenak. Kasu honetan, *enpresariaren ordezkaritza organikoaz* ari gara.

Edozein kasutan, enpresariek, bai banakakoak eta sozialak, beste pertsona batzuengana ere jo dezakete bere zuzendaritza eginkizunak betetzeko (*enpresariaren borondatezko ordezkaritza*).

Enpresariaren borondatezko ordezkaritza: goi-zuzendaritzako langileak

Gerentea, zuzendari nagusia edo merkataritza-faktorea (ahaldun nagusia): Faktorea, enpresariak izendatu duen enpresariaren ordezkari bat da, enpresariaren izenean eta ordezkaritzan trafikoan jardun dezan. Enpresariaren laguntzaile nagusia da. Enpresariak izendatzen du enpresa, establezimendu edo sukurtsal bat zuzentzeko. Negozioen egungo praktikan, gerente, zuzendari nagusi edo antzeko gisa ezagutzen da. Merkataritzako Kodeak "faktorea" deitzen dio. Faktoreak botere edo ahalorde orokorra behar du. Botere edo ahalorde orokorrak esan nahi du boteredun edo ahaldunak enpresaren ohiko trafikoaren parte den guztiaren gainean administratzeko, zuzentzeko eta kontratatzeko ahalmena duela. Botere orokor hori espresuki – ahoz edo idatziz – edo tazitoki ematen da, azken hau, establezimendu baten zuzendari bezala jarduteko gaitasuna duen pertsona bat jartze hutsagatik. Zuzendari nagusiak edo gerenteak enpresariaren izenean kontratatzen duela espresuki azaldu behar du kontratuan eta enpresariaren izenean egindako egintzen eta kontratuen emaitza oparoak edo aurkakoak enpresariaren gain geratuko dira. Enpresariak bere gain hartu beharko ditu gerenteak hirugarrenekin hartutako betebeharrak, eta hirugarren horiek egindako erreklamazioak jasan beharko ditu. Faktoreak, enpresariaren izenean ari dela adierazten ez badu, faktore bera hirugarrenarekin zuzenean lotuta geldituko da. Salbuespena: hirugarren horrek, kontratu hori enpresariaren kontura egin dela frogatzen badu (hau da, enpresaria ordezkatuz egin zela), hirugarren hori faktorearen edo enpresariaren aurka zuzendu daiteke.

Boterea inskribatuta dagoen edo ez desberdindu behar da:

Banakako enpresariak ez du urteko kontuak Merkataritza Erregistroan depositatzeko obligaziorik.

Merkataritzako Erregistro Zentrala, Madrilen dago. Bere funtzioak hurrengoak dira:

1.- Erregistro lurraldetarretatik bidali zaizkion inskripzioen funtsezko datuak jasotzen ditu.

2.- Jasotako datu horiek Merkataritzako Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz arduratzen da (BORME). BORME-a egunero argitaratzen da (larunbatetan eta igandeetan ezik). Inskribatutako egintzei buruz BORMEan egiten den argitalpenak garrantzi handia dauka egintza horiek Aldizkari horretan argitaratu ondoren hirugarrenei oposagarriak izango baitira.

3.- Inskribatuta dauden Sozietateen deituren sail bat dauka bere kargu. Deituren sail honen helburua sozietate desberdinak deitura berdinekin ez inskribatzea da. Hori dela eta, sozietate bat eratu nahi denean, deituraren zertifikazio negatibo bat eskatu behar zaio Merkataritzako Erregistro Zentralari.

<u>Erregistroan inskribatzen diren sujetuak eta egintzak</u>

Banakako enpresarien inskripzioa borondatezkoa da. Baina inskribatuta ez dagoen banakako enpresariak ezin du Merkataritzako Erregistroan bere dokumentuen inskripziorik eskatu baina bai bere liburuak legalizatu.

Merkataritza Sozietateen inskripzioa derrigorrezkoa da: Sozietate Anonimoa, Erantzukizun Mugatuko Sozietatea, Sozietate Kolektiboa, Sozietate Komanditario sinplea eta Akziozko Sozietate Komanditarioa.

Horietaz gain, Elkarren Bermerako Sozietateak, interes ekonomikoko elkartzeak, Aurrezki Kutxak, aurreko guztien sukurtsalak, aseguru entitateak, kreditu entitateak, Aseguru eta Kreditu kooperatibak, etab. inskribatu behar dira.

Inskribatutako enpresari eta sujetu bakoitzari orri bat irekiko zaio inskripzioen liburuan eta, bertan, Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduak adierazitako egintza eta gorabeherak inskribatuko dira.

<u>Erregistro publizitatearen printzipio orokorrak</u>

Merkataritzako Erregistroaren materia guztia printzipio batzuetan oinarritzen da.

1.- *Titulazio publikoaren printzipioa.* Inskripzioa dokumentu publiko bidez egingo da. Dokumentu pribatu bidez Legeak eta Erregelamenduak espresuki aurreikusitako kasuetan egingo da. Ad. Sozietate baten eraketarako eskritura publikoa dokumentu publikoa bat da.

egin dutela, sozietatea izango da bazkideek egindako ekarpenen jabea. Bazkideak sozietatearen kapitalaren partaidetza baten jabe izango dira.

Enpresari sozialaren izaera, iraungitzearekin batera galtzen da, hau da, desegitearen ondoren likidatu egiten da, eta, ondoren, dagokion inskripzioa bertan behera utzi behar da.

2.2. Enpresariaren estatutu juridikoa.

Enpresaria estatutu juridiko berezi baten mende dago, bere izenean jarduera ekonomiko komertzial, industrial edo zerbitzu-jarduera bat ustiatzeagatik. Estatutu horrek berekin dakar:

- Merkataritza Erregistroan inskribatzeko ahalmena (banakako enpresaria) edo obligazioa (merkataritza-sozietatea).
- Kontabilitate ordenatua eraman beharra.
- Konkurtsoari buruzko Lege bat aplikatuko zaio.
- Tradizionalki, konkurtsoaren erregulazio berezia aplikatu zaio (lehengo porrotak eta ordainketa-etendura), nahiz eta 2003tik kaudimengabeziaren erregulazioa bateratu den.

2.3. Merkataritzako Erregistroa.

Kontzeptua

Merkataritzako Erregistroa, erregistratzaile baten kargu dagoen bulego publiko bat da. Bertan, banakako enpresariak, merkataritza sozietateak eta beste entitate batzuk inskribatzeaz gain, Legeak eta Erregelamenduak adierazitako beren egintza eta gorabeherak inskribatuko dira. Erakunde hau, nagusiki, *Merkataritzako Erregistroaren Erregelamenduan* (Reglamento del Registro Mercantil) erregulatuta dago batez ere.

Erregistroaren garrantzia

Merkataritza Erregistroak bertan inskribatutako informazioari publizitatea emateko balio du. Honela, merkataritza-trafikoari segurtasuna ematen dio, sozietateen eta inskribatzen diren sujetuen datu juridikoak eta ekonomikoak eta haien ordezkariak zeintzuk diren argitaratzen baititu.

Enpresariaren jardueraren ondorioz, garrantzitsua da edozein hirugarrenek, edozein unetan, enpresariaren inguruabarrak ezagutu ahal izatea. Ezagutza hori lortzeko, inguruabar horiei publizitatea ematen zaie hainbat medioren bidez; horien artean, Merkataritza Erregistroa. Merkataritza Erregistroarekin batera, beste publizitate-bide batzuk aipatu behar dira, hala nola Merkataritza Erregistroaren Aldizkari Ofiziala (BORME). Horrela, edozeinek jakin dezake zein

A. Banakako Enpresaria

Pertsona fisiko batek hurrengo baldintzak bete beharko ditu banakako enpresari izateko.

1.- *Enpresari izateko legezko gaitasuna izan eta jarduera ohikoa izatea.*

Gaitasuna izango dute merkataritzan aritzeko, adinez nagusiak izanik (18 urte), beren ondasunak askatasunez xedatzeko ahalmena duten pertsonak (bere ondasunak erabiltzeko laguntzarik behar ez dutenak, ad. ondasunak saldu edo oparitzeko). Beraz, adingabe emantzipatuek ezin dute beren kabuz merkataritzan jardun. Adingabeek ezingo dute merkataritza jarduera bat hasi (ez bere kabuz ezta ordezkari baten bidez). Hala ere, adingabeek, beren gurasoek edo kausatzaileek egiten zuten enpresa-jarduerarekin jarraitu ahal izango dute (ez hasi), betiere, beren ordezkarien bidez egiten badute. Ordezkariek, adingabeen izenean eta kontura gauzatuko dute enpresa-jarduera.
Hala ere, pertsona batzuk, enpresari izateko gaitasuna izan arren, ezin dute jarduera enpresarial bat garatu enpresari jarduera beren lanbide edo funtzioekin bateraezina izateagatik. Lanbide edo funtzio batzuk jarduera enpresarialetan aritu nahi duten pertsonen interes partikularren alde erabil ez daitezen lortu nahi da.

Jarduera enpresariala, antolatua eta merkatura zuzendua, *jarraitua* izan behar du. Hau da, ohiko jarduera izan behar du.

2.- *Izen propioan aritu behar du.* Izen propioan aritzeak, ez du esan nahi, enpresari izateko, pertsonalki aritu behar denik. Enpresariak jarduera enpresariala pertsonalki edo ordezkari baten bitartez egin dezake. Enpresariak jarduera enpresariala pertsonalki edo ordezkari baten bitartez egin dezake. Enpresaria, jarduera enpresarialean bere izen propioan pertsonalki aritzen dena edo bere izenean jarduera enpresarialean aritzeko beste batzuk bere ordezkari bezala jartzen dituena da. Ordezkaria beste baten izenean ari da eta, ondorioz, ez da enpresaria. Ordezkatua izango da enpresaria. Enpresaria enpresaren titularra da eta, pertsonalki aritu edo ez, arriskuak jasan eta, ondorioz, galerak edo irabaziak izango dituena. Jarduera enpresarialaren ondorioz eskubideak edo obligazioak izango dituena da enpresaria, bera baita egin diren kontratuen alderdietako bat (ad. salerosketak).

B. Enpresari soziala

Enpresari sozialaren kasuan, enpresaren titularra pertsona juridiko bat da, eta sozietate bat eratzeko formalitate batzuk bete behar dira. Sozietate-kontratu bat egin behar da, notario aurrean

Batasuneko Egunkari Ofizialean (DOUE) argitaratu behar dira indarrean sartzeko.

Europar Batasuneko zuzenbidean gorengo mailan, **Europar Batasuneko Hitzarmenak daude**. Europar Batasunaren Hitzarmen eratzaileak, hauek aldatzen dituztenak eta Estatu kideen atxikipen aktak dira. Hitzarmen batzuk, Estatuen eskumen batzuk Europar Batasunaren esku uzten dituzte. Europar Batasunaren jarduera guztiak, Estatu kideek sinatutako Nazioarteko Hitzarmenetan dute abiapuntua. Hitzarmenetan oinarrituaz, Europar Batasuneko erakundeek, Estatu kideetan derrigorrezkoak izango diren arauak onartzen dituzte. Arau hauek Europar Batasuneko Hitzarmenen azpitik daude eta hurrengoak dira (Erregelamenduak, Direktibak).

Europar Batasuneko zuzenbidearen lehentasuna. Europar Batasuneko Zuzenbidea Estatu kideen Zuzenbidearen gainetik dago. Beraz, estatu kideek ezin dute Europako Zuzenbidearen aurkako Zuzenbide nazionalik aplikatu. Printzipio horrek Europako Zuzenbideak Zuzenbide nazionalen gainetik duen nagusitasuna bermatzen du.

- **Erregelamenduak.** Europar Batasuneko Kontseiluak eta Parlamentuak onartzen ditu, eta Europar Batasun osoan automatikoki aplikagarriak dira (DOUE) Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen direnetik. Erregelamenduak derrigorrezkoak dira Estatu kideetan, zuzenean aplikagarriak, Estatuek ezin dute beren edukia aldatu eta ez da Estatuaren konfirmaziorik behar Estatu barneko zuzenbidean sartzeko.

- **Zuzentarauak edo Direktibak.** Europar Batasuneko Kontseiluak eta Parlamentuak onartzen ditu. Estatuek lortu beharreko arau edo printzipio batzuk finkatzen dituzte, baina Estatu bakoitzaren esku uzten dute legearen azken edukia. Estatu kideak dira arau honen hartzaileak, eta ez partikularrak. Zuzentarauek gutxieneko batzuk ezartzen dituzte, eta Estatuek gutxieneko horiek beren legedian sartu behar dituzte.

- Ba dira garrantzi txikiagoko **Erabakiak.**

lege arrunt baten bitartez, lege organiko baten bitartez baizik. Lege Organiko bat ezin du Autonomia Erkidego batek onartu.

- **Lege arruntak (Legeak)** dira lege organikoak ez direnak. Lege organiko bidez erregulatu behar ez diren gaiak Gorte Nagusiek (edo Autonomia Erkidegoetako parlamentuek) lege arrunten bitartez arautzen dituzte. Lege arrunta onartzeko, aldatzeko edo indargabetzeko gehiengo sinplea behar da. Lege arruntak Konstituzioaren menpe daude eta ez lege organikoen menpe, hauen maila berdina bait dute, baina gai-mota desberdinak arautzen dituzte. Honen inguruan bada bitxikeria bat. Autonomia-erkidegoek legeak onar ditzakete, baina soilik beren eskumenekoak diren gaiei buruzkoak. *Autonomia-erkidegoetako legeak* kasuan kasuko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, indarrean jartzeko. Adibidez, Euskal Herrian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA-BOPV) argitaratzen dira. Lege autonomikoak lege arrunten maila berekoak dira.

Legeak egitea botere legegilearen eskumena bada ere, salbuespenezko kasu batzuetan posible da gobernuak (botere exekutiboak) lege mailako arauak egitea. Hauek, Estatu mailan Errege Lege-dekretuak eta Legegintzako Errege-dekretuak dira.

- **Errege Lege-dekretuak** (*Real Decreto-Ley*) dira gobernuak egiten dituenak premiazko eta ezohiko kasu batean dagoela uste duenean. Errege Lege-dekretua, nahiz eta indarrean berehala sartzen den, behin-behinekoa da eta 30 eguneko epean kongresuari aurkeztu behar zaio honek onar dezan (edo ez) eta behin-betikoa bihur dadin. Lege arruntaren maila berean dago eta lege arrunt batek modu horretan egin den araua alda edo indargabetu dezakete.

- **Legegintzako Errege-dekretua** *(Real Decreto legislativo)* Gobernuak onartzen duen araua da, Gorteen delegazio espresuarekin. Delegazioa ezinezkoa da Lege Organiko bidez erregulatu behar diren gaietan. Legegintzako Errege-dekretuek ere lege maila dute. Bi mota bereizten dira.

a) Batzuetan, Gorte Nagusiek gobernuak jarraitu beharreko oinarriak ezartzen dituzte, eta gobernuaren esku uzten dute Legegintzako Errege-Dekretua egitea. Gorteek egindako testuari *Oinarri-Legea* deitzen zaio eta Gobernuak egiten duen testuari *Testu artikulatua.* Beraz, Gorteek Gobernuari lege berri bat egiteko ahalmena delegatzen diote baina beti ere hari ezarritako oinarri batzuk errespetatuaz.

b) Beste batzuetan Gorteek lege arrunt baten bitartez, Gobernuari delegatzen diotena ez da Lege berri bat egitea, lehendik dauden zenbait lege edo arau bakar batean bateratzea baizik, hau da, *Testu bateratua* egitea.

Bi kasuetan, Gobernuak egindako araua Legegintzako Errege-dekretua izango da.

Erregelamendua

Gobernuak edo Administrazioko beste organo batzuk sortutako arau idatziak dira. Bigarren mailako arauak dira eta legeen menpe daude, oro har, legeak garatu edo osatu egiten dituzte. Goragoko mailatan dauden arau idatzi guztiak errespetatu behar dituzte eta ezin dituzte kontraesan, aldatu ezta derogatu. Erregelamendu mota desberdinak daude, hala nola, Estatu mailan, ministroen

1.3. Integrazioa europarra.

Espainia Europako Ekonomia Erkidegoko (EEE) estatu kide bihurtu zen 1986an. Horrela, Espainia EEEk ordura arte emandako xedapenei eta egintzei lotuta geratu zen formalki. Une horretatik aurrera, Europar batasuneko Zuzenbidea Espainiako Zuzenbidean sartu zen. Europar Batasunaren Tratatua 1992an sinatu ondoren (Maastricht), gaur egun oraindik ere Europar Batasuna (EB) deitzen dena sortu zen ofizialki.

Hauek dira Europar Batasuneko erakunde nagusiak:

1) **Europar Kontseilua** da Estatu kideetako *Gobernu-buruak* edo *botere exekutiboa duten Estatu-buruak* elkartzen dituena urtean zenbait aldiz. Europar Batasuneko politikaren norabidea markatzen du eta bere lehentasunak finkatzen ditu.

2) **Europar Batasuneko Kontseilua** Europar Batasunean erabakiak hartzen dituen organo nagusia da. Kontseiluaren bileretara Europar Batasuneko kide diren Estatu bakoitzeko ministro bat joaten da, bileran tratatuko den gaiarekin, erlazionatuta dagoen ministroa (ad. nekazaritza, industria, garraioa, inguru giroa). Hauxe da, nagusiki, botere legegilea, europar parlamentuarekin konpartitzen duena, hau da, Europar Batasuneko arauak onartzen ditu.

3) **Europar Parlamentua** Europar Batasuneko herritarrak ordezkatzen dituen organoa da. Estatu kidetako parlamentariz osatuta dago. Europar parlamentariak politikoki afinak edo antzekoak diren taldetan elkartzen dira, nazionalitatea alde batera utziz. Komisioak arau bat egiten duenean, Europar Batasuneko Kontseiluari eta Europar Parlamentuari bidali behar dio. Hauek erabakiko dute araua onartzea ala ez. Parlamentuak eta Kontseiluak pisu berdina izango dute. Hala ere, gai konkretu batzuetan, Europar Batasuneko Kontseiluak bakarrik hartzen du arauaonartzeko erabakia, baina kasu horretan Parlamentuari kontsulta egin beharko dio. Hau gai sensibleetan izango da (ad. fiskalitatea).

4) **Europar Komisioa** da arauak proposatzen dituena. Berak dauka ekimena eta gero Parlamentuari eta Kontseiluari aurkezten dizkio, azken hauek erabakiko dutelarik araua onartzea edo ez. Araua egitean, xehetasun teknikoetarako adituak erabiltzen ditu. Europar Batasunaren arauak Estatu kideetan aplikatzen direla kontrolatzen du. Estatu batek Batasunaren arau bat aplikatzen ez duela ikusten badu, Estatu horri gutun bat bidaliko dio, ez aplikatzearen arrazoia galdetuz. Prozedura honen bitartez egoera konpontzen ez bada, Komisioak Justizia Auzitegira bidaliko du arazoa, honek behar den zehapena jar dezan.

5) **Justizia Auzitegia.** Europar Batasuneko arauak interpretatzen ditu Estatu kide guztietan arauak modu berdinean aplikatzen direla bermatuz. Europar legediaren arau hausteak izan diren ala ez aztertzen du.

Demokratikoa da, bertako herritar guztiek (zuzenago edo zuzenago) Gobernuan parte hartzen dutelako. Subiranotasuna herriari dagokio, eta Estatuko erakunde politiko guztien bidez erabiltzen du herriak botere hori, ordezkarien bidez eta legearen arabera.

Estatua ere *soziala* da, bere burua behartzen baitu, legearen bidez, justizia soziala eta herritar guztien ongizatea babestera eta sustatzera, osasun-sistema publikoaren, irakaskuntza publikoaren, pentsio-sistemaren eta abarren antzeko neurriekin.

Botere-banaketa

1) **Botere legegilea** da parlamentua, herria ordezkatzen duena. Honi, espainiar Konstituzioak 'Gorte Nagusiak' deitzen dio. Bere funtziorik garrantzitsuena legeak onartzea da, baita ere Estatuaren aurrekontu orokorrak onartzea eta gobernuak egiten duena kontrolatzea. Gorte Nagusiek, bi kamera dituzte eta biek parte hartzen dute legeak egitean: Diputatuen Kongresuak eta Senatua. Horrela, Kongresuak lege-proiektu bat onartu ondoren, proiektu hori Senatuak eztabaidatu beharko du.

2) **Botere exekutiboa** Gobernua eta Administrazioa dira. Gobernua, Presidenteak, Presidente ordeak eta Ministroek osatzen dute. Gobernua Presidentea izendatu ondoren eratzen da (diputatuen kongresuak izendatu duen presidentea). Gobernuko kideak Erregeak izendatzen ditu, Presidenteak proposatuta. Gobernuak zuzentzen du Estatuko barne eta kanpoko politika, Administrazio zibila eta militarra eta Estatuaren defentsa. Horretaz gain, Erregelamenduak ('bigarren mailako arauak') onartzeko ahalmena du.

3) **Botere judiziala** epaileek osatzen dute. Hauek legearen menpe daude eta legea aplikatzen dute arazoak konponketarako aurkezten zaizkienean.

Gobernu forma

Espainiako estatuaren forma politikoa "monarkia parlamentarioa" da. Erregeak estatuburuaren funtzioa betetzen du. Oinordetzaz iristen da kargura. Baina, era berean, demokrazia bat dugu Parlamentuarekin. Erregeak gainerako organoen erabakiak formalizatzen ditu, eta Parlamentuaren eta Gobernuaren kontrolpean dago. Hiru botere klasikoen ondoan, beraz, Koroa dago.

Estatu egitura: Estatu autonomikoa eta euskal autonomia erkidegoa

Estatua hainbat mailatan antolatzen da: udalerriak, probintziak (bi horiek administrazioa lokala osatzen dute) eta Autonomia-erkidegoak. Estatu horri «Estatu Autonomikoa» edo «autonomien Estatua» esaten zaio.

Bestetik, bereizi egiten dira ere:

- **Derrigorrezko arauak (inperatiboak)** nahitaez bete beharreko arauak. Arau hauek diotena partikularrek ezin dute aldatu. Araua dagoen bezala aplikatu behar da (ad. Adin-nagusitasuna hasten da 18 urte betakoan, KodeZibila 315 art.).
- **Hautazko arauak (dispositiboak)** pertsona interesatuek alda ditzaketenak dira. Pertsonek beren arteko erlazioak erregulatu ditzakete eta hautazko arauan ezarritakotik modu desberdinean izan daiteke erregulazio hori. Hautazko arauak, pertsona horiek autorregulatu ez dutena osatzeko aplikatuko dira (ad. ezkontzaren ondasun-eraentza), hau da.

Zuzenbide publikoa eta zuzenbide pribatua:

Zuzenbide objektiboaren oinarrizko bereizketa zuzenbide publikoa eta zuzenbide pribatuaren artekoa da. **Zuzenbide publikoa,** Estatuak esku hartzen duen harremanez arduratzen da, Estatuak botere publiko gisa jarduten duenean, imperiumarekin (botere goren gisa). Estatuaren antolaketa eta jarduera, erakunde publikoak eta partikularren eta administrazio publikoaren arteko harremanak arautzen ditu. Oro har, zuzenbide publikoa nahitaezkoa da. **Zuzenbide pribatua** aldiz, posizio juridiko baliokidean, berdintasunean, dauden subjektuen arteko harremanak arautzen ditu. Partikularren arteko harremanak (adibidez, salerosketa-kontratua) edo partikularren eta Estatuaren arteko harremanak izan daitezke, azken honek partikular gisa jarduten duenean soilik (adibidez, errentamendu-kontratua).

Bereizketa honetarako irizpide bat **interesa** da. Arau publikoek interes orokorra babesten dute, hau da, herritarrena orokorrean eta, aldiz, arau pribatuek interes partikularrak babesten dituzte.

Beste irizpide bat **erlazio juridikotan parte hartzen duten subjektuen izaera** da. Arau publikoek subjektu publiko batek beste subjektu publiko batekin edo partikular batekin dituen erlazioak erregulatzen dituzte, botere publiko gisa (imperiumarekin) arituz jokatzen duenean. Arau pribatuek partikularren arteko erlazioak, edo partikularren eta sujetu publikoen arteko erlazioak, azken hau botere publiko gabe aritzen denean, hau da, partikular gisa, erregulatzen dituzte.

Oinarrizko bereizketa honetatik abiatuta, azpisailkapenak egiten dira. Horrela, zuzenbide publikoaren adarrak dira: Administrazio Zuzenbidea, Zigor Zuzenbidea, Finantza eta Zerga Zuzenbidea, Zuzenbide Prozesala eta Nazioarteko Zuzenbide publikoa. Berriz, Zuzenbide pribatuaren adarrak hurrengoak dira: Zuzenbide Zibila, Merkataritza Zuzenbidea eta Lan Zuzenbidea.